

J.A. MUXIKA-RI ERANTZUNEZ

Agur aberkide:

Abertzaleok elkar kitzikatuz eta zikinduz, ez duk Euskal Herria inora iritsiko. Gaur geure batasuna lortu behar diagu aurrenik: eginkizun horri buruz ba diagu lanik aski.

Hire eskutitza laburki bederen erantzun gabe utziko banu, ordea esan dituan puntu batzuk batasun horri buruz gerta litezke kaltegarri: eta egia ager eraztea beharrezko iruditzen zaidak.

Aranberrik ongi bildu zizkian Oñati-n esan nizkionak (Z. Argia, 705; 1976-IX-26); eta nik ez nioan orduan esan, eta ez beste inon ni "anti-marxista" naizenik. Gaitzizen hau sozial-imperialistek leporatu zidatek aspaldidanik; eta arrakastaz leporatu, itxura denez.

Bai Amatiño-ren elkarriketan, bai ZABAL-en egin dudan azalpen xehe eta lu bai "P. de Manifiesto" delakoan, bai beste antz lekutan gauza berbera esan izan diat beti:

1— Kapitalismoaren barruko demokraziaren gezurra eta ustela argitzekotan, inork ez duela Marx-ek baino hobeki egin; eta puntu honetan, eta sozialismo-gintzan ere bai iberaz, denok gataizkiola zor dun Marx-i, ni neu barne.

2— Beste arazo askotan, eta gizonaren azken funtsaz berdin nik uste, Marx-ek ez zuela egia xuxen aurkitu, ene ustez; eta, hortaz, arazo horietan nik neure burua marxista aitortzeko arrazoinik ez dudala ikusten.

Hau guztia, berriz esateko, ZABAL-en azaldu nian xeheki (ikus "Izarreko-ren sozialismoa" deritzan artikulua). Hik ez duk irakurri, dirudienez.

Gauza bat dut kristaua ez izatea, eta beste gauza bat duk anti-kristaua izatea. Gauza bat duk katalana ez izatea, eta beste gauza bat duk anti-katalana izatea. Gauza bat duk marxista ez izatea, eta beste bat duk, nik uste, anti-marxista izatea.

Bigarren puntu bat orain:

ETA 1967-an zergatik utzi ote nuen, noski, eta barka zak: hi askoz ere beranduago sartu hintzenez gero, hobeki jakin uste diat nik, hik baino. Abertzale izanik ere, bai orduan eta bai gaur, ETA-k Marx-en azterbidea erabili ohi dik gehien bat; eta ez zioat nik egoerak eta irtenbideak horrela ikertzeko eskubidea ukatzen, eta ez ukatuko. Baina nor bere irizpidea aitortzeko kemena behar dik izan.

Bestetik ere, hobe ala okerrago ote zen ez zekiat; baina haserako ETA zahar-rean ez zuan hori gertatzen. ETA aldatu duk hortaz, ez ni.

Gainerako irainez eta hitz gogorrez ez diat ezer erantzungo: luzeegi bailekiokie irakurleari, eta pitin bat aspergarri ere bai nik uste.

Puntu batzutan ez gaituk gogaide; hau garbi zegok. Abertzale garenez, halere, gogaide gaituk funtsean. Utz dezagun, hortaz, gaur gaurkoz bigarren mailan berez-ten gaituna; eta, otoi, elkar gaitezen funtsezkoenean. Gero geroakoak.

Egon hadi ziur: hau eskatzen ziguk herriak: bai niri, bai hiri, bai denoi.

TXILLARDEGI

Kaixo Lagunok!

Aurrez aurretik adierazi nahi dizuet oso pozik hartu nuela "Z.A."ren formatu berria eta harez gehiago poztu nintzala ez zela azaleko aldaketa bakarrik izan ikusi nuenean mamiz baizik. Poztutzen nau ere ikustea nola zenbakiz zenbaki aldizkaria hobetzen doan, moldaketa ikustea beste-rik ez dago.

Mamiaren aldetik lehen esan dudan bezala geroz eta mamitsuagoa iruditzen zait; berri gehiago, informazio gehiago eta freskoagoa e.a. Halaz ere zenbait puntutan sakontasuna falta zaio. Ikusten dut irakurlearen atal bat falta dela, hots zera esan nahi dut noizbehinka horrelako "atal fantasma" bat agertzen da "irakurleak mintzo" izenarekin; Hontan irakur ditza-kegu bizpahiru gutun. Nik uste atal hau potentziatu behar dugu geuk irakurleok geure iritzia emanik idatzi behar dugula zeren horrela bakarrik lortuko dugu euskal kazetaritza hobetzea eta azken funtsean euskara sabaltzea. Horrela ba, idatz ezazue guztiok aldizkari hobe bat lor dezagun.

ZORIONAK ETA JARRAI AURRERA!

XABIER ERTZ

Zuzendari jaun:

BADATOZELA, BADATOZELA, BADATOZELA deitu sailean urriaren 5eaneskuineko piztitzarrak egindako okerrak azaldu zenituzten. Zorionak!

Baina Bar Aitzgorrin egindakoak aipatzera-koan ez zenituzten denak jarri. Tabernako buru egiten duenak ez zuten nonbait atea giltzaz itxeko betarik izan. Aulki bat jarri zion atzean. Eta bi lagunekin geratu zen barruan.

"Kontrolatu gabeko" talde ezagun hori azaldu zen. Bultzaka eta kolpeka atea ireki eta enkargatuari ostikoka ekin zioen. Ubelduta utzi zuten. Begia, berriz, nahiko gaizki jarri zioten.

Egiaren zerbitzutan.

B.G. (Donostia)

MIKEL UGALDERI

Lagun Mikel, Agur:

Zure gutunarekin oso ados nator, baina nire ustez zuk esaten dezun bezala, "zenbat buru ainbat aburtu" koperatibak eduki lezaken akats bat falta zaio agertzea, alegia danok entzun izan oi degun bezala komunistak demokraziaren bitartez iristen dirala agintea lortzea, baina au lortzean diktadore burtzen dirala, esan nahi nizuke era berean berdiñeko ariskua daukala koperatiba bateko langi-

lleak.

Era guztitako elkarte edo soziedadetan izaten dira bizkorrak eta ez ain bizkor- rarak, eta legezkoa denez bizkorrak izaten dirala jauntxo, orduan gertatu leikena koperatibak irabaziak izaten ditucnean irabazi auek danen artean banatu bear izaten dirala, bakoitzak ipiñi duan diruaren araberan; bañan emen dago kakoa, len esan bezela bizkorrak izaten dira aurren- tako aginpideetan eta auek konturatu litezkeala, zera, irabazien banatze au danen artean banatzea baño obea ez etelitzaken izango izango beren artean banatzea, eta orrá egun batez sozioari adieraz ten zaio, gauzak ez direla ondo joan eta galera aundiak eta zor aundiak (bai ote?) daduzkala koperatibak, eta ez dagoela jor- nalik ordaintzerik; orduan albiste onekin izututa askok berek emandako diruaren renunzia firmatu eta alde egiten dute, besteak ezin egonik illabete askotan irabazirik gabe bai eta ere alde egiten dute, naiz eta renunziarik firmatu ez; orduan gure gizon bizkor auek koperatibaren jaun eta jabe egiten dira, eta saldu al izateko guztiak saldu eta beste toki batean tresna berdiñak egiten asten dira, bañan ez koperatiba bezela baizik S.A. edo S.L. bezela eta gizon auek ori eginda gero la- sai dabilta kalean, gauza au gertatu lite- keela esan det baño orain dala urte gutxi au gertatu zan Gipuzkoako koperatiba batean; gauza oneri erderaz esan lezaiok ESTAFA, bañan jakin bezate koperatiba- ko langilleek GAUR EZ DAGOELA ES- PAÑIAN LEGERIK GIZON AUEI ES- KURIK ERASTEKO.

Asieran esan det ados natorrela zure gutunarekin, kapitalismoaren aurkako zerbaite dela koperatiba, bañan erne ez de- dilla demokraziaren bitartez, edo sozio batzuen diruarekin diktadore edo kapita- lista biurtu.

Agur terdi MIKEL

PAOTA

Adixkidea

Goiz huntan eskuratu dut "Zeruko Ar- gia" 708 zenbakia. Irakurtzen hasi naiz u- saian. Baina ez dakit zer gertatzen den zenbaki hortan. Orrialdeak eskas dira. A- labainan, huts bat badu zenbaki honek. Zer eginak dira 21 eta 22garren orrialde- ak. Ezaguna da arrats untsa orrialde hori erroetarik ateratua izana dela. Nolaz?

Badakizie, zuek huts honen arrazoina? Ala mugan gertatu da hori?

F.G. (Grand Sémanaire-DAX)

OHARRA: Inoiz mugan galdu izan ba- dira ere orrialde hoiek ez dira mugan gal- duak. Donostiako "Información y Turis- mo"ko delegaduak behartu ginuen orrial- de hoiek kentzera. Ordena-zaintzaileen- tzat laidogarria omen zen ha zetorren ar- gazkia.